

MAILEGUZKO HITZAK

I. HITZ HASIERAK

Erdaraz hasieran *r* edo *s* + kontsonante duten hitzei, euskarak bereganatu dituenean protesi-bokala jarri die orain arte. Adibidez: *a-*, arratoi, arropa, arrosa; *e-*, erramu, errege, erregela, erremedio, Erroma, Errusia, estatu, ezpata; *e/i-*, ezpiritu/izpiritu. Eta joera horrek gaurdaino duen indarra ikusiz, gisa bereko hitzak mailegatzean, aurrean *e* bat eranstea gomendatzen da: erromantiko, erradiografia, erlatibitate, espeleologia, eski...

Hitz horiek, ordea, ez dute zertan *a/e/i*-rik hartu, aurretik elkarketa dela eta jadanik beste bokalen bat daramatenean: Erreforma/Kontrarreforma. Salbuespentzat uzten dira azken orduko mailegu irentsi gabeak. Siglak: RENFE. Izen propioak: Rembrandt, Röntgen, Roquefort, Sri Lanka, Stalin. Eta berrikitan hartuak bereziki: radar, rally, ranking, record, robot, rock-and-roll, royalty, standard, stop...

Aintzina euskarak /p/, /t/, /k/, fonemak hasieran zituzten erdal hitzak —pace, tempora, castelli—, beraiek mailegatzean /b/, /d/, /g/, bilakarazten zituen eskuarki —bake, denbora, gaztelu—; baina joera hori aspaldian galduta delarik, Euskaltzaindiaren aburuz, gisa bereko hitz berriak erdaratik jasotzean ez litzateke aldaketarik egin behar. Esaterako: politika, penizilina, telegrama, topografia, kontrola, kimika...

Era berean, hitz oinarria aintzina mailegatua delako aldatua izan arren, haiengandiko erdal eratorri berriak ez dute euskaraz aldaketa beharrik. Adibide gisa: gorputz baina korporazio, denbora baina tenperatura, lore baina flora (faunaren osagarria).

(1983.eko Abenduaren 30eko batzarrean onartua)